



OÑATIKO UDALA
idazkaritza@onati.eus
Telefonoa: 943 78 04 11
Fax: 943 78 30 89
20560 OÑATI

OÑATIKO UDALA

Udal Osoko Bilkurak 2021eko martxoaren 25ean egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

Udal hilerriko kontzesio administratibo berriak eteteko proposamena

Egungo hilerria 1875 urtean eraiki zela eta bi handitze egin direla adierazi du Zerbitzuetako Batzordeak:

- .- Lehen handitzea: 1967. urtean (alde zaharraren ezker aldean kokatzen dena, autopsia gela, gorpu-gordailua eta lurperatzailearen bulegoa hartzen ditu)
- .- Bigarren handitzea: Hiru fase izan ditu 1977an, 1983an eta 1993an.

Hilerriko udal ordenantza, 1994ko abuztuaren 9an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Bigarren artikuluan jasotzen denaren arabera, panteoi tradizionalak zein nitxodunek kontzesio iraunkorra dute eta gainontzekoek 5-10 urtekoa.

Kontzesio iraunkorrari dagokionez, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeko 93.3 artikulua arabera, gehien jota 75 urtekoa izan daiteke. Epe horren bukaeran, emakidaren iraungitze-espedita irekiko beharko luke Udalak. Kontuan izan Toki erakundearen ondarearen erregelamenduko 4. eta 74. artikuluen arabera udal hilerria zerbitzu publikoa dela, eta ondorioz 1955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioetako Zerbitzu erregelamendua edo bere kasuan Administrazio Publikoen Ondareari buruzko Legea direla aplikagarriak. Azken lege horretako 137.4.c) artikulua arabera, emakida bukatutzat eman ondoren familiaren oinordekoek berriz emakida erosteko lehentasuna izango lukete, kontuan izanda hilobi horretan familiakoak daudela lurperatuta.

Hilerrietako partzelen salmentari dagokionez, esan behar da epai (sententia) ugari dagoela, Auzitegi Gorenarenak barne, ezinezkoa dela diotenak.

Bestalde, azken urteetako hilobien salmentek eragin dute gero eta hilobi gutxiago libre egotea eta salmentarekin jarraituz gero, gerta daiteke hilobirik ez izatea eta lurperatzeko oinarrizko zerbitzua den lurperatzea, ezin eskaini ahal izatea.

Ondorioz, Zerbitzu Batzordeak proposatu du udal hilerriko kontzesio administratibo edo emakida berriak etetea.

Gaia aztertuta, eta Zerbitzuetako Batzordearen irizpena aldekoa dela kontuan hartuz, Udalbatzak aho batez erabaki du *Oñatiko Udal Hilerriaren Erregimen eta Funtzionamendurako Araudiaren* 14. artikulua, emakida berriak ematea, etetea.

Urriaren 1eko 39/2015 legeko 83. artikulua arabera, jendaurrean jarriko da erabakia 15 laneguneko epean, Udal Iragarki taulan eta Udalaren web orrian.

Oñatin, 2021eko apirilaren 30ean

Idazkariak

INPUGNAKETA-BIDEAK

Honen berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako. Bide batez, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko

AUZI-ERREKURTSOA aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, Donostian, **BI HILABETEKO EPEAN**, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1.998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, **nahi izanez gero**, aurreko idazatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, **BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA** aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari **HILABETEKO EPEAN** jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsuak aurkezteari kalterik egin gabe.

MEDIOS DE IMPUGNACION

Lo que se le/s notifica a Vd/s. a los efectos procedentes, significándole/s que, contra el citado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, podrá/n Vd/s. interponer en el plazo **de DOS MESES**, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, **RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO** ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo con sede en Donostia-San Sebastián, a tenor de lo establecido en los art. 8 y 46 de la Ley 29/1.998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el art. 114.c) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, **con carácter potestativo**, y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá/n Vd/s. interponer **RECURSO DE REPOSICIÓN**, ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de **UN MES** que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Todo ello, conforme a lo establecido en los artículos 123, 124 y concordantes de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare/n oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.